


G A I A

Freineten 100. urteurrena



Célestin Freinet, Frantzia hegoaldeko herri txiki batean jaiotzen 1896 urtean. I. Gerra Mundialean birriketan zauri bat jasan zuen eta harrezkero, bizitza osoan irauin zioten ondorioek: denbora luzean jarriaian hitz egiteko mugak zituen. Irakasle bezala, 1920an hasi zen lanean herri txiki batean 6-8 urte bitarteko hurrekin. Alpatuako ezintasuna zela eta, klaseak emateko dinamika aldatu egin zuen: gelatik kanpora irteten zen hurrekin egur-diero, horrela, landareak, insektuak, erreka, harriak... zuzeneko harreman batez aztertzen zituzten hurrekin. Heziketa pedagogiko eta kultural autodidaktikoa hasi zuen Freinetek.

20. hamarkadan bere teknika nagusiak etengabe agertzen hasi ziren: ikastetxeen arteko elkartrukeak eta kooperatibismoa. 1926tik aurrera, Eilise bere emaztearen laguntzaz esperimintuetan eta hezkuntzako teknika berrietan murgilduta zebiltzan irakaslearen artean mugimendu pedagogiko bat hasi zuen: CEL (Irakaskuntza Laneko Kooperatiba).

30. hamarkadan bere proposamenak zabalduz joan ziren. CELek kongresuak ospatzen zituen urtero, hezkuntza aldizkariak eta material pedagogiko desberdinak argitaratzen ziren eta irakalean prestatutako diktandoak antz bultzatzen ziren.

Baina denek ez zuten ongi ikusten bere mugimendua. Gara hartan lanean zegoen Vence herriko St. Paul ikastetxeko alderdi kontsebadoreenak gaitzetsi egin zuten eta indarretan lekuz aldatua izan zen. Emazteak (hau ere irakaslea zen) eta bereak ez zuten indarretan derrigorituak leku aldatze hori onartu, eta irakaskuntza publiko-

an dimittitu egin zuten.

Orduak aurrera, eskola propio bat egiteko beharra ikusi zuen. Eskola hori kooperatibaren laborategi pedagogikoa izango zen, hezkuntza gizarte berriaren munita. Egia esan, paradokikoa da mende honetako eskola publikoaren defendatzaile susuenen ikastetxe pribatu batean lanean aritzen zirenen gortua ikustea. Baina pribatua izan arren, bere bokazioa publikoa zen, beste eta bateko publikoa dukarik gabe.

Gara honetan asko bidaiaitu zuen eta bere tekniken eragina handituz joan zen. Belgika, Estatu espainiarra, Italia eta Suitzian aplikatzen hasi ziren, eta baita herrialde gehiagotan ere jarriaian.

II. Gerra Mundialak prozesu hau guztia geldiarazi egin zuen. Kontzentrazio-esparru batean egon zen urte c'ardi. Han prestatu zituen bere lanik helduenak. Aske gelditu ostean, Erresistentzian parte hartu zuen. 1943an Vencera itzuli zen eta CELeko eskola eta biltegi guztiak hunkaz gora zuzendua ikusi zuen. Berehala lanari ekin eta 1947an Freineten Eskolaren atak bertorio ireki ziren. 50 eta 60. hamarkadetan, bertorio ere, indar pedagogiko garrantzitsu bezala zabalduz joan zen. Nazioartean mailan ere bere garrantzia handituz joan zen. Bere lanak hizkuntza askotara iruzliaik izan ziren.

Bere bizitzako azken urteak hezkuntza teknika berriak lantzen eman zituen. Eta ondoren, ICEMEC (Eskola Modernoko Institutu Kooperatiboa) berak proposaturako lanarekin jarraitu zuen.

Eskola Berriko pedagogio gehienak medikuak eta biologoak ziren heinean, Freinet irakaslea zen, eta hori ere aipa-

tzekoa da.

Freineten Teknikak
Hitz gurtxitan esateko, Freineten pedagogia berriaren ardatza kanpora ateratzea, ingurumen ezagutzea, esperimintatzea eta hori guztia adierazteko izan ziren. Inguruneuz baliatuz heziketa aktibo, kritiko eta erabiltzaile lortu nahi zituen. Haur protagonista zen eskola berri bat sortu zuen.

Hori lortzeko ohiko testu libururuak eta libururegiko klaseak alde batera utzi, eta irakurketa metodo naturala eta idazketa libre bultzatu zituen. Hau da, haurari ematen zion hitza, azken finean. Asanblada, gelako antolaketa kooperatiboa, irakale eta ikaslearen arteko esperientzia trukatzea, eztabaida eta materialen ekoizpena ziren landu beharrekoak Freineten ustez. Hauraren askatasuna eta sormena eta konprometuz kolektiboak lortu egon behar dute. Iniziatiba eta protagonismoa haurrenak dira. Garrantzitsua haurrak anabon aurrean jartzea da, eta teknika horien bitartez gaitzitzak aurrera jarraitzeko aukera emanango dio.

Prozesu honetan agente desberdinek parte hartzen dute: testuinguruak, ikaslearen aniztasunak, gurasoen aniztasunak, kultura erakuntza, gela, pertsona, klima, ideologia... ezberdinek e.a. Irakaskuntzaren edukiak testuinguru hau kontuan hartuta definitzen dira; elkarrekin kultura desberdinetako ezagutza eta trukatzearen osatzen da; eta irakasle eraldaketa sozialaren bitartekaria da. Hori lortzeko eta aurrera eramateko gauza antz landu daitezke: ikastetxeko egunkaria, testu libre, marrazketa libre, fixeroak, gelako liburategia, hormirudiak, kon-